

BENITO ANSOLA BEKAK

OINARRIAK:

Topagunea Euskara Elkarten Federazioak, Lekeitioko Udala eta Euskal Zine eta Bideo Bileraren laguntzarekin, eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren babesarekin, euskal kultura zabaldu eta ikus-entzunezkoen ekoizle gazteei laguntza emateko asmoz, **BENITO ANSOLA BEKAK** sortu ditu gazte sortzaileentzat. Gehienez bi izango diren beka horietako bakoitzak, 4.000 euroko diru-laguntza izango du, ondorengo oinarrien arabera:

1. Deialdi honetara, ikus-entzunezko lanak (fikzio, sorkuntza, animazio nahiz dokumentalak) egiteko proiektuak aurkez daitezke, jatorrizkoak eta beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.
2. Euskararen presentzia ezinbestekoa izango da, ahozkoa edo idatzizkoa euskara hutsean. Beste edozein hizkuntzaren presentzia, ikus-entzunezkoan ondo arrazoitu beharko da.
3. Deialdian Euskal Herrian bizi edo jaio diren gazte euskaldunek parte hartu ahal izango dute, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:
 - a. Bakarka nahiz taldeka aurkeztuz gero, gutxienez 18 urte beteta izan beharko dira oinarri hauen publikazio egunean eta lana entregatzean 36 urte bete gabe.
 - b. Taldean aurkeztuz gero, talde teknikoaren adina hartuko da kontuan, ez ekoizpenean agertzen diren aktore edo pertsonaiena.
4. Parte hartzaile edo talde bakoitzak, bere benetako izena edo taldearena agerian jarri gabe, bi gutun-azaletan proiektuaren bi kopia entregatuko ditu. Proiektua honakoek osatuko dute:
 - a. Landu nahi duen ikus-entzunezkoaren azalpena (gehienez hiru orrikoa): izenburua, sinopsia, argumentua. Ikus-entzunezkoan landutako generoa, iraupena, formatua eta soinuaren datuak.
 - b. Landu nahi den ikus-entzunezkoaren 4-5 orriko gidoi grafiko edo storyboard-a.
 - c. Pelikularen aurrekontu justifikatua eta ekoizpen plana: non eta noiz filmatuko den, zein ekipo tekniko, baliabide eta alokairuak egingo dituzten eta abar.
5. Parte hartzaile edo talde bakoitzak, proiektuekin batera eta aparteko gutun-azal itxi batean (ale bakarra) egilearen edo taldekide bakoitzaren izen abizenak, helbide fisikoa, posta elektronikoa, telefono mugikorreko zenbakia, nortasun agiriaren fotokopia eta norberaren argazkia gehituko dute. Taldeen kasuan, bakoitzaren argazkiak gain, taldeko argazkia ere gehitu beharko da.
6. Hiru gutun-azaletan ikus-entzunezkoaren izenburua jarriko da bakarrik.
7. Proiektuak, 2010eko irailaren 27ra arte bidali ahal izango dira. Bidalketak honako helbidera egin beharko dira:

TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa
Benito Ansola Bekak
Arlozabal 8bis 1C
48220 Abadiño (Bizkaia)

8. Ikus-entzunezkoetan aditu talde batek jasotako proiektu guztiak aztertu eta gehienez, haietako bi izendatuko dituzte irabazle 2010eko azaroaren 27an Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bilerako itxiera ekitaldian. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, beka eman gabe utz ditzakete epaimahaikoek.
9. Antolatzaileek ez dute bere egiten lanen proiektu eta lan bukatuetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota emandako iritziak. Beraz, ez dute inongo erantzukizunik.
10. Beka bakoitzeko diru-kopuruaren erdia, izendatu bezain laster jasoko du irabazleak, eta beste erdia, ikus-entzunezko amaitua entregatu eta epaimahaikoek onespena emandakoan, lehen erdia jasotzen duenetik urtebetera gehienez. Bekako dirua emateko ekitaldian, sarituen presentzia guztiz beharrezkoa izango da, taldea osoa ez bada ere, taldearen ordezkari bat joan beharko da saria jasotzera.
11. Irabazleek, izendapena jaso eta 2011ko maiatzaren 27ra bitarteko epea izango dute gehienez, ikus-entzunezko amaitua Topaguneari helarazteko. Lanaren bukaerako kredituetan bekaren aipamena egingo da nahitaez antolatzaileek adierazitako testu eta logoekin, horrela erabakiko balitz.
12. Iraupena alde zurretik zehazten zaila bada ere, gutxienez bederatzi eta gehienez 18 minutuko iraupena izango duen ikus-entzunezkoa izango da. Bitarte horretan egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, antolatzaileei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onspena jaso beharko du.
13. Ikus-entzunezkoaren sortzaileak edo sortzaile taldeak lana entregatuko ez balu, edo lan horren izaera eta kalitatea, epaimahaikoen iritziz, proiektuan azaldutakoan aldean nabarmenkiro kaxkarragoak balira, itzuli egin beharko du jasotako dirua.
14. Diru-laguntza jasotako lanaren jabetza, egilearena izango da. Alabaina, lan hori ezin izango da jendaurrean erakutsi, Lekeitioko 2011ko Euskal Zine eta Bideo Bileran estreinatu eta ekitaldi hau bukatu bitartean.
15. Beka hauetan saritutako lanek, beste lehiaketa batzuetara aurkeztu ahal izango dira estreinaldia egin ondoren, beti ere oinarri hauetan aipatzen diren baldintzekin kontraesanean erortzen ez bada.
16. Saritutako lanak **Creative Commons AITORTU-PARTEKATU** lizentziapean zabalduko dira. Horren arabera, egileek baimena ematen dute euren lana edozeinek **ikus, erakutsi edota berrerabiltzeko**, beti ere **egiletza aitortuz eta eratorritako lanak oinarri hauekiko baldintza berdinetan partekatuz**. Informazio gehiagorako, ikus: <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>. Topaguneak saritutako lanak argitaratu, zabaldu eta barne egitasmoetan erabiltzeko eskubidea izango du.
17. Beka-deialdi honetan parte hartzeak, bertako oinarriak ontzat ematea dakar. Horien ulermenean zalantzarik balego, Topagunea euskara Elkarten Federazioari dagokio erabakitzea.

Bilbon, 2010eko uztailaren 1ean.

OHARRA.- Edozein argibidetarako helbideak eta datuak:

Topagunea Euskara Elkarten Federazioa.
Arlozabal 8bis-1C.- 48220 Abadiño (Bizkaia)
Telefona: 946215968.- Mugikorra: 663841575. Eposta: gazteak2@topagunea.com